

KOMETA IZAN NAHI ZUEN KARTOI ZATIA

Bazen behin kartoi zati bat kometa izan nahi zuena. Goiz batean gizon bizartsu bat pasa zen bere ondotik eta kartoi zatiak esan zion:

-Nik kometa izan nahi dut!

-Nik ez dut kometarik behar ! –erantzun zion gizon bizartsuak presaka aurrera jarraituz.

Emakume bat pasa zen hurrengo eta kartoiak esan zion:

-Nik kometa izan nahi dut!

Baina emakumeak ez zion batere jaramonik egin.



Handik lasterrera mutil koxkor bat igaro zen eta:

-Nik kometa izan nahi dut!

Mutikoak kartoi puska lurretik jaso eta pozez beterik erantzun zion:

-Horixe berori da nik behar dudana jolasteko!.Munduko kometarik ederrena egingo dut zurekin!

Eta kartoi zatia poz-pozik joan zen Mintxorekin.

Mintxo etxera heldu eta bere logelan sartu zen. Artaziak, koloretako paperak eta kola hartu eta lanean hasi zen.

Hurrengo egunean Mintxo kometa hartu eta parkera abiatu zen.

Laster, Ane eta Xabier heldu ziren eta harrituta geratu ziren:

-Hori da kometa ederra hori, Mintxo! –esan zioten biek aho zabal-zabal eginda.

-Goazen arin airean dantzatzera!

Jai eguna zen eta parkea jendez beterik zegoen. Denek ikusi eta ukitu egin nahi zuten kometa bikain hura. Kometa harro-harro zegoen. Jaurtiki zutenean kometa dantzan hasi zen.

Halako batean haize bolada bat etorri zen eta Anek halaxe esan zion Mintxori:

-Oraintxe, Mintxo! Askatu kometa!

Mintxok haria askatu zuen eta kometa gora eta gora igo zen.

-Agur, Mintxo! Mila esker...Mundua ikustera noa.

Eta hodei artean ezkutatu zen alai-alai.

Bizartsua: bizar asko duena

Jaramon egin: kaso egin

Handik lasterrera: laster, berehala

Haize bolada: haize aldia.

GALDERAK

1.- Kartoiak zergatik nahi ote zuen kometa izan?

2.-Zuk zer egingo zenuke kartoi hura aurkituko bazenu?

3.-Zergatik zegoen parkea jendez gainezka ?

4.-Zergatik esaten dio Anek Mintxori kometa askatzeko?

5.-Askatasuna hain garrantzitsua al da zure ustez?

6.-Nora joango zinateke kometa bazina?

Ipuin bat asmatu eta idatzi beharko duzu. Hona hemen bukaera:

“Ez zuen sinisten. Helmugara iristen lehenengoa izan zen”